

Donostia, 2022ko abuztuaren 3a

## UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Aitzole Araneta Zinkunegi Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, **ondasun higiezinaren gaineko zerga** arautzen duen zerga ordenantza aldatzeko arau proposamen hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, adostasun nahiko zabala dago: Donostiako arazo handienetako bat etxebizitzaren prezioa da, horren ondorioz, pertsona askorentzat oso zaila baita etxebizitza bat eskuratzea. Gure udalerrian oso modu berezian eta bizian eragiten duen arazo horren aurrean, etxe eta etxebizitza huts asko daude, donostiar askok etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun handiak dituzten hiri berean.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen Foru Arauak aukera ematen du egokitzen jotzen duten udalerriek zergaren kuotaren gaineko % 150erainoko erretegia aplikatzeko etxebizitza hutsei. Udal-mailan, OHZren gaineko erretegi hori tresna eraginkorra izan daiteke etxebizitza espekulazioaren xede ez izateko, baizik eta etxebizitza bizitzeko leku bat izateko, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean aitortutako helburu soziala bete dadin.

Etxebizitzaren egoerak premiazko eta askotariko neurriak eskatzen ditu, besteak beste, etxebizitza hutsak alokairuaren merkatura sar daitezten. Helburu hori lortzeko moduen artean, etxebizitza bat hutsik mantentzeko kostua OHZren gaineko % 150eko erretegi horren bidez areagotzea modu erabilgarria iruditzen zaigu. Hala ere, zerga-tasa bidezkoak ez diren beste politika batzuekin ere osatu beharko litzateke estrategia, adibidez, Alokabide programako etxebizitza kopurua areagotuz.

Hori dela eta, Donostiako Udalbatzari proposatzen dizkiogu honako ERABAKI hauek:

### LEHENA:

Azalpen-zatiaren arabera, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den eranskina aldatzea, hau esan ordez:

«Etxebizitza dagoen udalerriko egoiliar baten ohiko bizileku ez diren etxebizitzaren kuotaren gaineko erretegia: **100%**»

Hauxe esan behar du:

«Etxebizitza dagoen udalerriko egoiliar baten ohiko bizileku ez diren etxebizitzaren kuota gainera errekargua: **150%**»

**BIGARRENA:**

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko den erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera. Era berean, erabakia behin-behinekoa izango dela joko da eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtuko dela.

Sinatua: Aitzole Araneta

*Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea*